

ERREPORTAJEA

# DILEMA ETIKO ETA POLITIKOA



Tartean teatro konpainiak 'Kortxoaren dilema' antzerki lana eskainiko du Leidorren urtarrilaren 26an; endredoizko komedia da, sakontasun handiko gatazka politikoak eta eztabaida etikoak dakartzana.

## **Jon Miranda**

Etika, koherentzia, traizio eta mendekuei buruzko joko teatral gisa aurkeztu du *Kortxoaren dilema* Tartean teatro konpainiak. Tolosan ikusi ahal izango da urtarrilaren 26an, eta Patxo Telleriak gerturatzeko gonbita luzatu die herritarrei: «Etortzen badira ez zaie batere damutuko». Antzerkigile bilbotarra da obraren egilea. 20:00etatik aurrera Leidorreko agertokian izango da Telleria, Mikel Martinezekin batera.

Iazko udaberrian obra honen ideia garatzen hasi, eta prestaketa lanen ostean, Bilboko Arriagan estreinatu zuten azaroaren 15ean. Konpainiako kideak pozik daude izan duen harrerarekin. «Gure taldea ezaguna da bertako errealitate kulturalarekin oso lotuak diren komediak egiteagatik. Batzuetan, ordea, gauza unibertsalagoak eta orokorragoak egiteko gogoia pizten zaigu. Nik aspalditik neukan buruan kontu po-

## ERREPORTAJEA

litiko-sozialetan muturra sartzeko obra bat egitearena, eta beraz, iazko urte hasieran hori prestatzeari ekin nion. *Kortxoaren dilema* da ariketa bat makinaria teatrala martxan jartzeko. Kontu politiko arantzatsu bat teatralki modu erakargarrian nola eman pentsatzen jarrita sortu zitzaidan ideia».

**Bi protagonista elkarren deman**

Bi protagonista nagusi ditu antzezlanak. Alde batetik adineko unibertsitateko irakasle bat, 70 urteak ondo beteak dituen eta sona handia duen erretiratutako katedraduna. Ezaguna da bere jarrera politiko eta ezkertiarrengatik, eta erreferentea da bere esparru ideologikoan. «Euskal Noam Chomsky bat», dio Telleriak. Garai bateko irmotasun eta erradikaltasunetik pixkana urrundu eta jarrera epeltzen joaten zaio urteekin, ezkerren trintxera bakarria zerga sistema duin eta justu bat defendatzea dela esateraino. Irakasle erretiratua, gainera, zerga betebeharrei iskin egiteko osasun sistemari egindako donazio bat tarteko, enpresari handi baten aurkako borrokan engaiatu da azken urteetan. Telleriak aitortu du nahikoa argi geratzen dela zeini egiten dioten erreferentzia antzezlanean: «Amancio Ortega ari gara. Minbizia sendatzeko balio zuen makinariak ospitale bat hornitu ondoren sortu zen polemikaz, alegia. 300 milioi euro gastatu omen zituen eta jende batek bere esku zabaltasuna laudatu bazuen ere, ahots kritiko batzuk agertu ziren esanez iruzur bat izan zela hura, ogasunari ordaindu beharko liokeena baino gutxiago zelako dohaintzan emandako diru kopurua».

Hain justu, gisa horretako enpresari handi baten aurkako borroka gidatu ondoren, antzezlaneko protagonista den irakasle erretiratuari minbizi gaizto bat diagnostikatzen diote, eta dohaintzan emandako

makina horietako batekin sendatzeko aukera ematen diote. Bere gaixotasunaren albistea komunikabideetan filtratu ondoren, «bere betiko lagunek eta betiko etsaiek» aurpegia emateko eskatzen diote. Edo bere aspaldiko ideiei uko egin eta tratamendua onartu, edo bere hitzari leiala izan eta hiltzeko arriskua asumitu.

Antzerki lana hasten den unean albistegi batean bere erabakiaren berri emateko adierazpen publiko bat prestatzen ari da irakasle ohia. Une horretan agertuko zaio aspaldi bere ikasle izandako gizaseme bat. «Une horretan hasten da obra. Duelu bat da, ikasle ohiaren eta irakasle ohiaren artekoa. Kontuak

**KORTXOAREN DILEMA**

URTARRILAK 26, OSTIRALA  
LEIDORREN, 20:00ETAN

**Egilea.** Patxo Telleria.

**Zuzendaria.** Mireia Gabilondo.

**Aktoreak.** Patxo Telleria eta Mikel Martinez.

**Esenografia.** Fernando Bernues.

**Zuzendari laguntzailea.** Aitor Borobia.

**Jantziak.** Ana Turrillas.

**Espazio sonoroa.** Adrian Garcia de los Ojos.

**Produktzioa.** Tartean konpainia Bilboko Arriaga antzokiaren kolaborazioarekin.

## ERREPORTAJEA

eskatzera dator ikaslea. Irakaslea ez da akordatzen baina bere garaian harreman estua izan zuten bien artean. Auzi politikoa tratatzen da, baina lantzen dira baita ere giza harremanak. Auzi pertsonalak tartean sartzeak hurbiltasuna ematen dio antzezlanari».

**Genero ezberdinen nahasketa**


Erakargarrtasun handia du obrak, Tartean konpainia-ko kideen esanen arabera «misterio eta intriga» nahasten dituelako. Ezusteak bata bestearen atzetik datoz, eta ikuslea harrapatuta geratzen da trama jarraitu nahian. Estilistikoki proposamen «bitxia» dela dio Telleriak, genero ezberdinekin jolastu dutelako: «Hasieran komedia baten aurrean gaudela dirudi, ohiko jolas hori planteatuz, bizkorra den pertsona bat alde batetik eta tonto usteko bat bestetik, azkeneko paperak aldatzen dituztenak. Baina bat-batean konturatzen gara, ia oharkabean, thriller poliziako baten aurrean gaudela, eta amaieran, geure burua ikusten dugu adiskideen arteko lehia bat irudikatzen duen antzezlan ia existentzial batean murgilduta. *Kortxoaren dilema* lanak bidaia luze bat planteatzen dio ikusleari, antzerki genero ezberdinen bidez egiten den bidaia luze bat».

Fernando Bernuesek prestatu du agertokiko eszenografia. Obrako gainerako elementu guztiak bezala narrazioaren mesedetan diseinatuta dagoela dio Telleriak. «Eszenaratze errealista nahi genuen baina sortzen den giroa nahikoa harrigarria denez, errealtatearen muga horiekin jokatzeko duen baita eszenografiak ere. Irakasle baten unibertsitateko bulegoa islatzen du, baina ez ohiko bulegoa. Muga horiek esploratzen ditu atrezzoak».

Lantalde zabalak hartu du parte *Kortxoaren dilema* prestatzen, es-

«Kontu politiko arantzatsu bat teatralki modu erakargarrian nola eman pentsatuz sortu nuen obra»

**PATXO TELLERIA**



zenografian bezala, soinu atmosfera sortzen, argiztapenean eta aktoreen zuzendaritzan. Mireia Gabilondo aritu da Telleria eta Martinezen lana gidatzen. «Ulertzen dugu gu biak zuzentzea bitxia izan daitekeela zenbait momentutan. Aspaldiko ezagunak gara

Mikel eta biok, elkarren dohainak eta flakeziak ondo ezagutzen ditugu. Konfiantza handia dugu, bartzuetan gehiegizkoa, eta arazorik gabe ematen dizkiogu elkarri aholkuak eta egiten dizkiogu elkarri kritikak. Badakigu uneoro ondokoa noiz dagoen onena ematen, eta noiz eragin behar diogun apur bat beheraldian sartua delako. Ia-ia automatizatuta daukagu, eta mo-

## ERREPORTAJEA

Antzerki obraren pasarte bat. **PIO ORTIZ DE PINEDO**

mentu batean irudi dezake gu geu zuzendariaren lanetan sartzen garela. Dena den, kanpo begirada hori, kasu honetan, Mireiarena, oso baliagarria izan zaigu gure lanerako», dio obraren egile eta aktoreak.

Ikaslearen paperean aritzen da Telleria eta irakasle-arenean, berriz, Martinez. Datorren udazkenerako dauka asmoa Tartean teatro taldeak *Kortxoaren dilema* obraren gaztelaniazko bertsioa estreinatzeko, eta kasu horretan, Telleriarekin batera, Ramon Barea ariko da irakasle erretiratuaren paperean.

### Ilusioa eta tema

2000. urtean sortu zuten Tartean teatro konpainia eta ordutik, urtez urte, proposamen berritzaileak egin dituzte. Sekretua zein den galdetuta antzerkia egiteko grinaz hitz egin du Telleriak: «Urtetan ilusioa mantentzea ez da erraza. Gure lanbidea konplikatua da. Ezegonkortasun handia dugu eta jende

«Lanak bidaia luze bat planteatzen dio ikusleari, antzerki genero ezberdinen bidez egiten den bidaia»  
**PATXO TELLERIA**

asko geratzen da bidean, erraz nekatzen delako burua hurrengo urtean zer datorkizun ez dakizunean. Une latzak eta nahigabeak izaten dira, baina guk asmatu dugu ilusioa mantentzen. Horrekin batera, tematiak gara, burugogorak. Egoskorak izateak laguntzen digu irauten».

Aktoreak bezala, hasiberriak eta esperientziadunak diren antzokiak ere badaudela aipatu du Telleriak eta Tolosako Leidor Euskal Herriko zirkuituan kontuan hartzeko moduko plaza dela esan du. «Urte asko da-

ramatza antzoki honek antzerki programazioarekin eta historia handia du atzean. Horrek pisu handia dauka eta nabari da taula gainetik ere». Gogoz daude Tartean konpainiako kideak Tolosara gerturatzeko. Urtarrilaren 26an, 20:00etatik aurrera eskainiko dute *Kortxoaren dilema* eta beldurrik eta lotsarik gabe esan du Telleriak: «Joaten ez denari ederki damutuko zaio».